

KANALAK

Kanalak ezinbestekoak dira enpresa batean, batez ere hasiera batean, non salmenta handiak izatea espero ez dugun, salmenta hauek nola antolatu ondo definituta edukitzea oso garrantzitsua da. Horrela, kanal egokiak mantentzen baditugu, bezero berriak erakartzeko aukera izango dugu.

Era berean, bezeroekin harremanak gure zonaldetik kanpo edukitzea ahalbidetuko duen online denda baten bidez, esaterako, gure produktu berria beste merkatu ekonomiko batzuetan sartzeari lortuko dugu. Modu honetan, ekoiztako hori bezeroarengana iristeko modua ahalik eta ondoen zehazten saiatuko gara.

Eguzkideak enpresan kanal zuzenak adina erabiliko ditugu zeharkakoak, biak batera erabiliz etekin handiagoak lortzea espero dugulako. Zeharkako kanalei dagokienez, denda bat sortuko dugu lehendabizi, Euskal Herriko kostaldean, eta horrek salmentak gure ingurura mugatuko ditu. Horregatik uste dugu komenigarria izango dela zuzeneko kanalak ere sortzea, gure web-orrian online erosketak egiteko aukera emanez.

Bestalde, kanal propioak edukitzeko asmoa dugu. Horrela, gure dendak guk antolatuko ditugu, baita online denda ere, eta horren kostuak ere gure gain hartuko ditugu. Enpresa hasiberri bat izanik, zaila iruditzen zaigu hasieratik batez ere kanpora begirako kanal elkartuak sortzea, baina etorkizunean salmentak hobetuz gero beste enpresa batekin kanal elkartuak sortzea planteatu genezake.

